

ARTAPENeko OFIZIALTZAKO LANPOSTUAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Artapeneko Goi Mailako II. LH
- Honako arlo hauetako jakintzak: igeltserotza, elektrizitatea, berokuntza eta EUB, suteen kontrako babes-sistemak...
- Honako hauexen artapenean izandako esperientzia balioetsiko da: osasun-eraiakinak, egoitzak, eguneko zentroak, ospitaleak, klinikak...

Azalpena

Babesten Taldean, ARTAPENeko OFIZIAL bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziiplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauexek izango dute xede, Taldeko Artapeneko arduradunaren eta zentroko Zuzendaritzaren menpean:

Honako hauexen artapenarekin lotutako oinarritzko edota zailtasun txikiagoko eragiketa-jarduera teknikoaren betearazpenean laguntzea edota parte hartzea: eraikinak, ekipamenduak eta instalazioak (elektrizitatea, gasa, higiene-ontziak, hozkuntza, telefonia, altzariak, berokuntza, pintura eta igeltserotza, besteak beste).

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Zentroko instalazio guztien ustiapeneko eta artapeneko arduradun zuzena izatea, egin beharreko lana antolatzea, lanak zuzenean egitea eta zerbitzu teknikoetako laguntzaileei betearazteko agintzea.
- Prebentziorako artapeneko ohiko jarduerak egitea, Prebentziorako Artapeneko Planean adostutako programazioa eta fabrikatzaileek bizitza teknikoaren luzapenerako zein kontserbaziorako egindako gomendioak kontuan hartuta.
- Akatsik antzemanaz gero, jatorria diagnostikatzen saiatzea eta euren baliabideen bitartez garaiz eta behar bezala konpontzeko duten gaitasuna ebaluatzea edo espezialistei deitzeko gomendioa egitea eta, ostean, egindako konponketak jasotzeko uneari adostasuna ematea, instalazioak eta zerbitzuak baldintza eraginkorretan egon daitezen.
- Behar besteko konponketak eta artapenerako erabilitako osagaien, materialen zein tresnen erosketa edota ordezkapena kudeatzea eta behar besteko erregistroak egitea zentroak zehaztutako prozeduren arabera, beti-beti laneko segurtasunari buruzko arauak kontuan hartuta.

- Instalazioen eta ekipamenduen prebentziorako eta zuzenketarako artapen-planak egokitzea.
- Makinei behar besteko kontrolak egitea zehaztutako prozeduren arabera eta azpikontratutako enpresek egiten dituzten konponketak edota prebentziorako ikuskapenak kontrolatzea.
- Barruko nahiz kanpoko elementuak kontrolatzea eta konpontzea.
- Aurrekontuak eskatzea eta, Zuzendaritzako aurrekontuaren arabera, euren arloko premiekin lotutako eskaerak egitea.
- Instalazioen eta ekipamenduen inbentarioa egitea eta eguneratuta edukitzea.
- Euren lan-arloko inbertsioak aurreikustea.
- Artapenerako protokolo eta prozeduren prestaketan parte hartzea.
- Autobabeserako Plana koordinatzea.
- Hondakinen kudeaketa koordinatzea eta behar bezala banatzen direla kontrolatzea.
- Hornikuntzen kontsumoak kontrolatzea (elektrizitatea, ura, gasa...) eta hobetzeko edo, antzemanaz gero, gorabeherak konpontzeko ekintzak proposatzea.
- Prebentziorako eta Zuzenketarako Artapenari buruzko txostenak egitea.
- Zerbitzuarekin lotutako helburuen zein adierazleen jarraipena egitea eta, egoeraren arabera beharrezkoa denean, hobekuntzarako ekintzak abian jartzea.
- Oro har, lehenago zehaztu ez diren arren agintzen dizkieten jardura guztiak egitea, betiere, haien lanbidearen zein prestakuntza teknikoaren arabekoak badira eta lehenago adierazitakotakoarekin zerikusirik badute.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Erabiltzaileek eta senideek euren erabilerako edo auzo-erabilerako ondasun higigarriak eta higiezinak konpontzeko duten premiari erantzuna ematea.

Zentroko langileei dagokienez:

- Langileek ematen dizkieten matxura-agiriak kudeatzea eta konpondu egin dituztela jakinaraztea.
- Erabiltzen dituzten langileei materialak, makinak eta tresnak erabiltzeko argibideak eta jarraibideak ematea.
- Langileei zentroko instalazioei, ekipamenduei eta materialei buruz bidali beharreko jakinarazpenak eta ohartarazpenak kudeatzea.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).

- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa